

ataria

2020-09-16 • 1.307. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Ikusezina den emakume baserritarra





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Arantxa Iturbe **3**

Erreportajea

Alkiza, Sormen Kabia **4-7**

Asteko Gaia

Langile izaterik ez duten emakume baserritarrak **10-17**

Xiberutik Aitor Atxega **18-19**

Iritzia Aritz Peñagarikano **20**

Iritzia Jone Alberdi **21**

Olerkia Ione Gorostazu **22**

Agenda Jose Luis Longaron **26-29**



26-29



21



Azaleko irudia
Eneritz Maiz

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai ezabatze eta lana eskaratu

Bikain

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeke Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezqueta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako Foru Aldundia



ARANTXA ITURBE
IRRATILARIA

Dendak eta gogoak

Ez naiz fio zerbaitetarako idazten diren liburuekin. Zerbaitetarako egiten diren antzezlan eta filmekin ere ez. Ez eta kantuekin ere. Denek balio dute zerbaitetarako, balio dezakete behintzat, edo balio beharko lukete baina ondoren, ez aurretik. Helmugan 'zerbait' hori jarrita abiatuz gero, artelanaren gainontzeko balio guztiak joanean galtzen dira.

Orain artekoa abstraktuegia iruditu zaionarentzat argibidea: erakundeen aginduz sortutako ikuskizunak propaganda dira normalean, eta elkarteen enkarguz eraikitakoak, panfleto (edo alderantziz). Gauza bat da artista bati gaia jarrita lan egiteko eskatzea eta bestea, gaiari buruz zer esan behar duen agintzea, eta gainera, ari dela, mezua ez dela argi geratu eta berriro hasteko aholkua ematea. Eta gertatzen da. Gero eta gehiago.

Eta segidan, herriko dendarien elkarteak eskatu bali bezala, bizpahiru lerro denda txikiei buruz. Eta ez, ez dit inork ezer eskatu. Gutxiago, agindu. Denda bat zegoen tokian pertsiara betiko itxita ikusteak zerbait astintzen dit erraien zatirik zaharrenean. Ez da oraingo kontua. Urteak daramatzagu noizbait ezagutu genituen dendan zerrenda nostalgikoak osatzen. «Ze pena», esaten dugu, autoa hartu eta kilometrotara dagoen *salgune* erraldoira abiatu aurretik. «Hau ere itxi al dute?», galdetzen dugu, urrutiko ezlekuren batetik atariraino zerbait ekartzeko eskaera ordenagailuz bete ondoren.

Dendarien elkarteak eskatuta ari banintz banan bana zehaztuko nituzke denda txikiek herri bakoitzaren bizitzan zer eragin duten, zer galtzen ari garen

haietako bat ixten duten bakoitzean. Nork galtzen duen gehiago. Baina ez ditut panfletoak maite. Propaganda ere ez.

Ez da propaganda Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* irakurtzen ari naizela esatea. Eta balitz, bost axola. Liburua ez da dendan propaganda, ez-eta dendariena ere. Berrogei urtez, eta oraindik, dendari diren bi emakumeren, bi ahizpen, bizitza jaso du Uxuek liburu berrian. Bien hitzetan. Gidoirik gabeko elkarrizketa etengabe. Beren langintza(k) maite dituzten bi ahots

Ez da propaganda Uxue Alberdinen 'Dendaostekoak' irakurtzen ari naizela esatea. Eta balitz, bost axola.

josi ditu eta balio izan dit dendak eta dendariak hiltzen uzteko bezain odol-galduak garela gogora arazi eta egin dakiekeen epitafiorik ederrena irakurtzeko zoria dugula esateko.

Ez du dendak salbatzeko balioko. Ez du horretarako idatzi. Ez dut uste, behintzat. Ez dakit zertarako idatzi duen. Gogoak eman diolako seguru-asko. Eta gogoak bezalakorik ez da edozertan hasteko. Gogoak da gauza ederrak egiteko osagairik funtsezkoena. Gogoak jartzen duzun hartan ez duzu beti asmatuko, baina gogogabetuta, sekula ez.

KOBAZULORA, AUZOLANEAN

Alkizako urriko kultur ekintzen barruan, Olatzazpiko koba txukundu nahi da auzolanean; bihar goizean jarrita zegoen hitzordua, baina eguraldiaren eraginez, «kobara iristeko bidea lokazturik egonik» momentuz data berririk gabe atzeratu behar izan dute ekimena.

Irati Saizar Artola

Ia mende bat atzera eginda, giza hezur batzuk eta eskuz egindako zeramikazko ontzi bat aurkitu zituen Tolosako mediku batek Alkizako Olatzazpiko kobazuloan. Bihar bertan, goizean, kobazulo hori txukuntzeko auzolana prest zegoen. Asmoa Aranzadi zientzia elkarteko Jesus Tapia arkeologoak lanak gidatzea zen. Hitzordua, momentuz, datarik gabe atzeratu bada ere, bertaratu nahi duenak, izena eman beharko du kultura@alkiza.eus helbidetan edo WhatsAppez 688 60 44 66 telefono zenbakian.

Badu historia kobazulo horrek. Aipatu bezala, eta Tapia arkeologoak kontatu duenez, duela ia 100 urte Tolosako mediku batek esplorazio bat egin zuen bere kabuz. «Giza hezur batzuk, zeramikazko ontzi bat eta basurdearen letaginarekin egindako ezpata txiki bat atera zituen». Handik denbora tarte batera, Telesforo Aranzadi, Jose Migel Barandiaran eta Enrike Eguren arkeologoak kontaktuan jarri ziren medikuarekin, eta hark materiala erakustean bigarren esplorazio bat egin zutela azaldu du Tapiak, baina gauza gehiagorik ez omen zuten topatu.

Bereziki zeramikazko ontzi hark, bere garaian interesa piztu zuela dio Aranzadiko arkeologoak: «Ondorengo lan batzuetan aipatu izan da ontzi hori; eskuz

egina izateko forma polita dauka, linea gozoak ditu, azala leuna eta ondo egosita dago; pieza benetan ikusgarria da». Bertan egindako aurkikuntzak San Telmo museoa egon ziren lehenik, eta egun, Gordailuan daude jasota, Gipuzkoako Foru Aldundiak ondare arkeologikoa zaintzeko duen zentroan.

Zaborrez beteta

1982an, lehendabiziko Gipuzkoako Karta Arkeologikoa argitaratu zen, eta bertan arkeologiari zegozkion ordura arteko ezagutza guztiak bildu ziren. Olatzazpiko koban aurkitutakoaren berri ere aipatzen da dokumentu horretan. Aurkikuntza aipatzearekin batera, kobazuloa zaborrez eta animalia hezurrez beteta zegoela ere adierazten zuen dokumentuak. Horrela, 2007 inguruan, Aranzadiko Jesus Tapia eta Imanol Zeberio koba ikuskatzera joan ziren eta «penagarri» aurkitu zutela dio. «Plastikoa, zaborra eta animalien hezur pila bat aurkitu genituen; oso egoera kaxkarrean zegoen».

Iaz, Alkizako Udala Aranzadi zientzia elkartearekin jarri zen harremanetan ondare hori balioan jartzeko zer egin zezaketen galdezka. Tapiak azaldu duenez, berriro joan zen kobara, oraingoan, Tolosako Amartzotz taldeko espeleologo batekin, eta lehendik zego-

en zaborraz gain, uralita botata zegoela ikusi zuten. Uralita hondakin arriskutsua denez, Alkizako Udalak hartu zuen hura erretiratzeko konpromisoa eta enpresa espezializatu baten laguntzaz egin dute lan hori.

Behin uralita erretiratuta, zaborra ateratzea da orain asmoa. Boluntarioak talde txikietan banatuko dira. Batzuk barrura sartuko dira zaborra poltsetan sartzera. Kobazuloak sarrera estua eta aldapa irristakorra duela aurreratu du Tapiak, beraz, soka baten laguntzaz kanpoaldean egongo den taldeak zabor poltsak aterako ditu. Gero, beste talde batek kobaren sa-

rteratik pistara eramango ditu zabor poltsak bertan sailkatu ditzaten.

Udalak jarriko ditu boluntarioen eskura eskularruak, kaskoak eta sokak. Hala ere, Tapiak deialdia egin du linternaren bat edo etxean duenak eraman dezan. Aurrerago bigarren esplorazio bat egin nahiko luketela adierazi du Aranzadiko arkeologoak: «Barandiaran, Aranzadi eta Egureni agian zerbaitek ihes egingo zien garai hartan eta posible da beste zerbaitegotea». Hala ere, lehenik, kobazuloa txukun uztea da asmoa, nahiz eta etorkizunean ezer ez aurkitu, itxurazko toki bat izan dadila Olatzazpiko koba.

ATARIAN jarrita Goierrri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

«Dimentsio osoa irudikatu nahi dut argazkiekin»

IDOIA UNZURRUNZAGA LLACH
ARGAZKILARIA

Alkizako Sormenaren Kabia bekaren saridunetako bat da argazkilari donostiarra. Hiru aste eman ditu sorkuntza lanean eta alkizarren eskutik ezagutu ditu herriko parajeak. Jasotako materialarekin egindako 'tour' birtualak erakutsiko ditu abenduan.



Jon Miranda

Gaika antolatu ohi du bere sormen lana Idoia Unzurrunzaga Llachek (Donostia, 1968), baina beti espazioaren inguruan gogoeta eginez. «Ideia, estetika eta teknika», hiru ardatz horietan oinarritzen ditu bere lanak, argazkilaritzak ematen dituen aukerak azkeneraino esploratuz.

Alkizan egindako egonaldiaz zein balorazio egiten duzu?

Hiru aste eman ditut eta oso esperientzia polita izan da. Alkizan instalatu naiz eta erabat murgilduta nago bertako erritmoan, soinetan, hemengo *tenpoan*.

Zein izan da argazkilaritzaren munduan orain arte egin duzun ibilbidea?

20 urte baino gehiago daramatzat argazkilari bezala. Arte Ederretan lizentziatua naiz eta lan profesionala eta pertsonala bereizten ditut. Profesionalki arkitektura arloa landu dut gehienbat eta arte munduko lanak egiten ditut, katalogoak, obren erreproduzioak, erakusketen erreportajeak... Lan pertsonaletan natura izan dut beti erreferente. Lan esperimentalak egin ditut arlo teknikoan eta formalean. Bioformismoa, abstrakzioa eta horrelako alorrak ukitu ditut eta orain errealitate birtualean nabil murgilduta. Argazkilaritzan hainbat aukera daude eta aukera horiek probatzea gustatzen zait.

Zer iruditzen zaizu Sormenaren Kabia bezalako proiektuek ematen duten aukera?

Nire lan profesionalari denbora gehiago dedikatzen diot, baina izaten dira lan pertsonalak egiteko tarte zabalagoak ere eta Sormenaren Kabia bezalako ekimenek horretarako arnasa ematen didate. Lagun batek eman zidan bekaren honen berri eta aukera interesgarria iruditu zitzaidan sorkuntza proiektu bat garatzeko. Aukera zoragarria da. Gipuzkoan 89 herri daude eta denek Alkizaren berdina egingo balute, pentsa zenbat proiektu interesgarri aterako liratekeen.

Zein da egonaldirako aurkeztu duzun proiektua?

Fagus Alkizak natura, gizakia eta kultura ditu ardatz eta gai horien bueltako proiektu bat aurkezteko eskatzen dute antolatzaileek. Ni hiritarra naiz eta nire egunerokotasunetik kanpora, eremu naturalean murgiltzeko esperientzia inmersiboak bultzatuko dituen behaketek eragin ditzaketen hausnarketek asko motibatzen naute. Beraz, nik proposatu dudana izan da ibilaldi batzuen bitartez Alkizako bost auzoetako paisaia irudikatzea: San Martin, Arana, Sakamidra, Hernio, Aldapa eta Azaldegia. Lan hori ez dut nik bakarrik egin, bertako herritarren bitartez baizik, haiek izan dira Alkiza erakutsi didatenak. Gidari lanak egin dizkidate. Hemen natur eremu batean gaude, dena da ederra eta ni bakarrik joan ninteen eta argazkiak atera, baina harago joan nahi nuen. Hemengo egoera eta espazioak bertakoen bitartez eza-



Idoia Unzurrunzagak Alkizan ateratako argazkiekin lanean jardun du egonaldian. **J. MIRANDA**

ELKARRIZKETA

Zer moduzko giroa izan duzu Alkizan argazkiak ateratzerako garaian?

Denetarik tokatu zait eta argazkiak horrelakoak dira. Zeru urdin-urdin agertzen da batzuetan, bestetan lainotuta, euria ere izan dugu. Orokorrean giro lainotsua izan dugu eta niri argi hori asko gustatzen zait argazkietarako. Ez dit eguraldiak baldintzatu. Ez gaude promozio turistikoa egiten. Egokitu egin naiz egoerara eta momentuan zegoen girora. Bide batez, egonaldi artistikoa udazkenean egiteko aukera ematen digute. Baso izugarriak daude Alkizan eta hemen aurkitzen ditugu pagoak, haritzak, urkiak, lizarrak, gorostia, fruta arbolak. Horieta-ko zuhaitz batzuei hostoen kolorea aldatzen ari zaie orain eta zoragarri dago paisaia.

Noiz ikusi ahal izango dugu emaitza?

Post-produkzio fasean nago eta badaukat nahikoa material konbinaketak egin eta soinuak integratzeko edo beharrezkoa bada testuren bat txertatzeko. Argazkilari-tzan ibilbide birtuala deitzen zaio lanketa mota honi. Aspalditik lantzen dudana materiala da eta badirudi orain hasi dela ezagunagoa egiten. Kasu honetan loturak egongo dira, interaktiboa izango da eta Alkizan auzoak bailaraka kokatuta daudenez agian mapa baten gainean irudikatuko dut guztia, norberak erabaki dezan nora joan nahi duen. Artistikoa baino, lan teknikoa da gehiago. Nik eta nirekin batera aukeratua izan den Maria Andres dantzariak gure proiektuen emaitzak erakutsiko ditugu abenduan. Gure sormen lana jarraitzen ari da Unai Sorrarain herritarra eta berak sortutako ikus-entzunezkoa ere orduan emango da ezagutzera.

Umeekin tailer bat egiteko aukera ere izan duzu egonaldi honetan.

Bai, dozena bat umerekin egindako tailerra izan da eta irudi panoramikoak erabiliaz egin diet jolaserako proposamena. Argazki artxiboak kartoi paperean inprimatu ditugu rombikuboctaedro forma geometrikoa duen objektua lortu ahal izateko. Paisaiaren osotasuna biltzeko modu bat da forma hori.

gutu nahi izan ditut. Jende irekia da eta eskuzabalak dira alkizarrak, asko eskertzen diet egin didaten harrera.

Ateratako argazkiek zein ezaugarri dute?

Hemengo herritarrek, noski, ingurunearekin harremana dute eta lursailak dituzte horietako askok. Gazteak eta helduak aritu zaizkit paisaiak erakusten. Detalleetan ez dut begirada jarri, larre edo baso espazioa erretratatzeko saiatu naiz, espazioa irudikatzen, orokorrean. 360 graduko argazkiak egiten ari naiz, gero birtualitate batean bukatuko dutenak. Espazioaren osotasuna azaldu nahi dut argazkiekin, dimentsio osoa irudikatu. Aldi berean hemengo soinuak erregistratzen ari naiz: uraren jarioa, hostoen mugimendua, txoriak, behiak... Guztia irudikatu nahi nuen jendea murgildu dadin paisaia honetan. Gero modu honetara egindako argazkiek aukera asko ematen dute. Egin daitezke ibilaldi birtualak edo giroeskopioarekin errealitate birtualeko betaurrekoak erabiliz zerbait muntatu. Prozesu horretan nabil orain. Aukerak badaude eta teknologia honek murgiltze horretan laguntzen gaitu.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa

ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

Garai berriei, moldaketa berriak

Ez da nobedade koronabirusak errealitateko hainbat arlotan aldaketak ekarri dituela. Zailtasunak zailtasun, egoera berrietara moldatzen gara etengabe; eta horretan ari da gure gizartea ere. Besteak beste, kultura kontsumitzeko eta lan egiteko modu digitalak indartzen ari dira. Pandemiaren aurretik ere bazen, baina azken hilabeteetan erroak sendotu ditu eraldaketa digitalak.

IZT Kooperatibako Juani Lizaso kudeaketa arduradunak eraldaketa digitala «ezinbesteko baldintza» dela uste du, eta enpresa arloan hainbat abantaila dituela nabarmendu du: «Informazioa antolakundeen baliorik garrantzitsuena da; informazio horren ustiaketa egoki batek abantailak eskaini ditzake merkatuan lehiatzeko, talentua eskuratzeko eta erabaki egokiak hartzeko». Mota guztietako enpresek sortzen dute informazioa. Talde handiek datu gehiago sortu eta kudeatu beharko dituzte, baina enpresa guztiek dute haien arloan beharrezkoa den informazioa, horien artean, bezeroen eta eskaeren datuak, hornitzaileen kontaktuak, diru transakzioak...

«Bada eraldaketa digitala horretan datza: informazio ahalik eta gehiena, modurik eraginkorrenean prozesatu eta erabiltzeko gaitasuna eskuratzean», horrela definitu du Amaia Galvezek, IZT Kooperatibako programa arduradunak, eraldaketa digitala. Prozesu hori abiatzeko enpresa bakoitzak bere bide propioa egin behar du, izan ere, eraldaketa digitalaren atal garrantzitsu bat enpresaren barne prozesuen digitalizazioa da. Hainbat atal biltzen ditu prozesuak, alde batetik, enpresa bateko lankideek, bezeroek eta kolaboratzaileek informazioa *online* partekatzea; bestetik, enpresa bezeroekin, hornitzaileekin eta merkatuarekin erlazionatzeko azkartasuna eta gardentasuna bermatzen ditu; eta azkenik, enpresari aukera ematen dio eskuratutako informazioa negozioaren norabidearekin bateratu eta abantailak lortzeko.

Eraldaketa digitalaren adibide dugu, esaterako, teledana. Langileei edonondik lan egiteko aukera ema-



ten die, eta Lizasoren esanetan, edozein gailutan egonda ere, enpresako instalakuntzetan bezala lan egitea ahalbidetzen du. Enpresa batek bezeroekin harremana egiteko moduan ere eragiten du. Gaur egungo kontsumitzaileek erosketak egiteko erosotasuna, erraztasuna, informazio gardentasuna, *online* eta edonoiz egiteko aukera bilatzen dute; horretara egokitzeko, tresna baliagarria izan liteke eraldaketa digitala. Dena dela, Galvezek merkatuaren errealitatea eta ezaugarriak aztertu behar direla nabarmendu du: «Badakigu enpresa txikiek ezingo dutela merkatuko erraldoiekin lehiatu, baina esparru digitalean ere azpimarratu daitezke hainbat indargune: hurbiltasuna, eraginkortasuna, kalitatea, arreta zerbitzua...».

Sarearen segurtasuna

Eraldaketa digitalaren ezaugarri nabarmena da informazioa Internetera eramatea eta mundu mailako sarean elkarlotzea; eta horrek mehatxu eta arrisku berriak sortarazi ditu. Mehatxu mota ezberdin ugari dago, eta sarearen garapenarekin batera sortzen dira berriak.

Zibersegurtasuna mehatxatzen duten eraso horietako gehienek informazioa lapurtzea edo bahitzea




dute helburu. Horietako batzuk dira *criptolocker* eta antzeko *ransomware*-en erasoak. Horiek e-mailez jasotako loturak klikatzean sartzen dira sisteman eta bertako informazio guztia enkriptatzen dute. Ondoren, informazioa berreskuratzeko diru kopuru jakin bat eskatzen dute; beste hitz batzuekin esanda, lehenik informazioa bahitzen dute, eta gero, erreskatea eskatzen dute. Lizasok erabiltzaile guztiei eragiten dien arrisku bat direla uste du: «Eraso horiek arrisku errealak dira guztiontzat. Horien biktima izan dira,

esaterako, udalak, ikastetxeak, multinazionalak... Zi-bersegurtasun institutuaren arabera euskal enpresek egunero 2.400 erasotik gora jasaten dituzte».

Erasoen aurrean defendatzeko, IZT Kooperatibako langileek bi motatako neurriak proposatzen dituzte: batetik, informazio sistema babestu behar da. Segurtasun fisikoa eta logikoa eskainiko duen diseinu egoki bat inplementatzea gomendatzen dute; eta bestetik, segurtasun politikak zehaztu behar dira enpresako talde guztiek informazio sistema baliatzeko prozedurak garbi izan ditzaten.

Lizasok eraldaketa digitalaren prozesua abiatzea ere gomendatu die enpresei eta udalei, bere hitzetan: «Hasi ez direnek lehenbailehen hasi beharko lukete. Orduan eta gehiago itxaron, orduan eta tarte handiagoa sortuko zaie beste enpresekiko, eta atzean geratu daitezke». Iritzi berekoa da Galvez, eta horrez gain, aholkulariei laguntza eskatzea ere oso garrantzitsua delakoan dago: «Estrategia ondo definitzea eta sistemaren diseinu egoki bat egitea ezinbestekoak dira arrakasta lortu nahi bada. Inbertsioak egin behar dira baina norabide egokian planteatuz gero, horien itzulera lor daitezke».



ERALDAKETA DIGITALEAN, BEHAR DUZUN BIDELAGUNA



Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain - 943 304 315 - nfo@izt.eus - www.izt.eus



EZKUTATUTAKO LANGILEAK

Emakumea eta baserria. Urteetan baserriko emakumeek pisu handia izan dute, eta gaur egun ere, baserriek zutik irauteko beharrezkoak dira emakumeak. Orduak, egunak, hilabeteak, urteak... lanean emanagatik, emakume horien lana aitortu gabea da gaur, oraindik.

Eneritz Maiz Etxarri

Ahoa bete-bete eginda esan ohi da emakumeek baserrian lan asko egiten dutela, beraiek gabe zaila izango litzatekeela baserria aurrera ateratzea, beraiek direla baserriaren kudeaketa zuzena egiten dutenak... Baina guzti horren aurrean, eta XXI. mendean egonagatik ere, emakume baserritarren lana ez da aitortua eta baloratua den lana.

Gehienetan, gizonaren pean agertzen da emakume baserritarra. Inon ez da ageri emakumearen izena, eta gizartearen aurrean ez du lanik egiten. Ez du kotizatzen bere bizitzan lan egindako ordu eta urteengatik. Lehen sektoreak egoera kaskarra bizi badu, emakume baserritarraren egoera are eta kaskarra goa da.

Horren aurrean sortu zuten Gipuzkoako Emakume



Baserritarak Tolosako babarruna biltzen, artasoroan. **N. ROLDAN DE ARANGUIZ**

Baserritarren elkarteak, EBEL, 1991. urtean. Egun 230 bat kide ditu. Bakardadeak elkartu zituen. Lan baldintzak, errentagarritasuna, segurtasuna eta formazioa nahi eta behar dituztela aldarrikatzen jarraitzen dute. Teknikoei emakume baserritarrekin lan egiteko deia luzatzen diete: «Teknikoak teoria jakin dezakegu, baina ez praktika», dio Maider Aramendi EBELeko koordinatzaileak. «Asko irakasten dute emakume baserritarrek, eta sarri-sarri protagonistekin elkartu beharko ginateke».

Koronabirusa etorri behar izan du, gizartearen zati batek lehen sektoreak egiten duen lana balioan jartzeko. «Tamalez, moda guztien moduan hau ere pasatu da», azpimarratzen du. «Ahoz bai, teorian bai, baina praktikan ez gaude prest gure *soxak* herrian uzteko». Pasa da, baina arrastoa utzi du herrietan. «Utzi du bide bat, jende bat herrietan eta horrek

poza eman digu». Beste aldean kokatu ditu politikoen erabakiak: «Ez du balio izan arduradun politikoekin eseri eta gauzak bideratzeko. Politikoen aldetik bakoitzak bere astoari egin dio so». Herrietan jarri du azpimarra, eta bide on asko jorratu direla, eta herri askotan lan ona egin dela dio. «Zaintza tarteko, dinamika on asko jarri dira martxan, eta izan dutena baino oihartzun handiagoa izan beharko lukete».

Aramendiren ustez, «benetako politikak egin eta benetako neurriak hartzen hasten baldin bagara, nik uste dut bestelako gizarte bat eraikitzeke ahalmena badugula, baina batetik utzi egin behar digute eta bestetik sinistu egin behar dugu». Sineste horretan lan handia daukagu egiteko, Aramendiren ustetan: «Sinistuta eta elkartuta indar handia egin dezakegu, eta COVID-19ak hori erakutsi du, eta ekimen oso politikak atera dira. Sektoreak biziberritze bat eduki du».

Emakume gazteak animatzeko deia

Baseri asko eta askotan erreleboa falta izan da baserriak bizirik irauteko. Baserriak hiltzen ari dira. Aramendik «poliki-poliki, eta oso poliki» emakume baserritarrek agertzen ari direla dio. «Nekeza da, eta oso zaila da, baina ikusten da emakume baserritarren nahia badagoela. Poza ematen du», argitu du. Nekazaritza eskoletan 18-19 urteko neska gazteak ari direla ikasketak egiten azpimarratu du, eta «hori da behar duguna».

Ainhoa Otañok orain eman du baserritik bizitzeko pausoa. Abaltzisketako Ipintza Barrena baserrian ukuilua handitzeko lanekin ari da. Laguntzen aldetik behar beste ez dagoela azpimarratu du, baina bere moduko bati animatzeko esango lioke: «Ez dezala bi aldiz pentsatu. Bizitza kalitatea askoz ere hobea da, eta badago aukera».

Aramendik zalantzan dagoenari «etortzeko» esan dio, «entzun eta ikasi emakume baserritar helduagotatik». Posible delakoan da, eta aurrera begirako proiektua egiteko: «Laguntza eskatzeko esango nieke, eta elkartuta, nahi duen hori egia bilakatu dadin».



«Hamar emakume baserritarretatik bakarra da eskubide osoz langile»

MAIDER ARAMENDI

EBEL-EKO KOORDINATZAILEA

Gipuzkoako Emakume Baserritarren elkarte da EBEL, eta bertako koordinatzailea da Maidar Aramendi ibartarra 2001az geroztik. Emakume baserritarra ez izanagatik, asko ikasi duela eta asko ikasten ari dela aitortu du emakume baserritarregandik.

Hasteko zer da EBEL, eta zergatik eta zertarako sortu zen?

1991. urtean sortu zen EHNE sindikatuaren barruan. Sindikatuaren barruan lanean zebiltzan emakume batzuen borondatez sortu zen, eta batez ere nahi batzuk edo behar batzuk ikusi zituztelako. Sektorearen barruko sektoreetan, bakoitzak bere lanean, behar batzuk ikusi, mahai gainean jarri, eta elkartzen hasi ziren. Gero, elkarte itxura eman zitzaion.

Emakume baserritarraren lana ezkutuan egon den lana izan da.

Egon den eta dagoen lana da. Bai garai hartan, eta baita gaur egun ere. Emakume baserritarrek bizi zuten egoerak aldarrikapen batzuk edo behar batzuk mahai gainean jartzea eskatzen zuen. Sektorean bertan, eta baita gizartean ere, eta instituzio eta gobernuetako mahai ezberdinetan. 1991n, batez ere, emakume bakoitzak bere lanean bakardade, ikusezin, autoestimua eta errekonozimendu falta,... sentitzen zuen. Hori dena kontuan hartuta, ardiekin, behiekin, baratzean, basoan... behar guzti horiek antzematen zituen. Horri erantzunez sortu zen elkarte, eta hori lantzen etorri da gaur arteraino. Horrek

ez du esan nahi 91tik aldatu ez denik. Egoera noski aldatu dela, baina aldaketa horiek dira moldatu, bizkortu edo lehenetsi behar ditugunak.

Urte guzti horietan lortu da aldaketak ematea?

Bai. Asko gainera, eta pozik gaude. Ni 2001az geroztik nago elkartean lanean, eta batez ere ikasten. Ni ez naiz emakume baserritarra, eta batez ere bizitzaz ikasten ari naiz emakume baserritarrek. Landa eremuko biztanlea izanagatik ez naiz baseritik bizi, gustatuko litzaidakeen arren. Asko ikasi dut, asko eman didate eta asko ematen didate. Aldatu da? Bai. Asko. Beharrak erakutsi die astintzen bai beraien ipurdia eta baita ingurukoena ere. Nahiz eta aldaketa horiek oso poliki izan, berandu etorri kasu batzuetan, eta berandu eta poliki etortzeaz aparte, beti nekazaritza politika ankerren menpe egon den sistema kapitalista patriarkal honen menpe egon da. Ez gara hortik at dagoen zerbait. Gizartearen parte gara, eta horrek ere asko eragiten du aldaketak ematerakoan edo nola emateko garaian.

Urte asko dira, baina non jarri du indarra urte hauetan guztietan EBEL-ek?

Emakumeak baserrian norberak bere lekua aurkitzetik hasi, eta bai autoestimua, bai formazioa,... hartu eman horiek ondo erabiltzean, eta beste aldetik, ikusezin izatetik, lan munduan ikusten den eragile langile bihurtzera. Horretan oinarritzen gara, eta horretan aldaketa dezente eman dira. 2017an jada nazkatuta, ez instituzioetatik, ez diputaziotik ezta Eusko Jaurlaritzatik ere ez ziren prest agertzen Euskal Herriko emakume baserritarren egoeran azterketa sakon bat egiteko. Aldundiaren diru laguntza bat baliatuz EBEL elkarte Gipuzkoako emakume baserritarren egoeraren diagnostiko txukun bat egiten saiatu zen. Mila baserrietara iritsi ginen, eta diagnostiko horrek erakutsi zigun orain dela hogeitun urte bezala gaudela, hainbat eta hainbat lan esparrutan. Horrek alarma piztu zigun, eta alarma piztekoa da. Instituzio guztietan, eta batez ere, nekazaritza politikak egiten dituzten artean. Sektorea bizirik mantendu nahi baldin badugu ezinbestean emakumea bertan ageriko eta eskubide guztiekin mantendu behar da.

Nola egiten da hori?

Ez gara ari emakumeari diruz lagundu behar zaionik esaten. Emakumeari lagundu behar zaio neurri positiboak eta diskriminazio positiboak eginez. Eta hori egin dezakete. Nekazaritza politikak aldatu behar direla gertatzen da, eta hori oso ankerra da. Oso-oso handia da, baina gure egitekoa horretara mugatzen da. Elefanteak pauso bat gehiago eman behar du aurrera, eta zalantzan jarri behar dugu sistema. Oker dabilela bai sektore honetan, eta baita orokorrean ere, baina batez ere sektore honetako gizon-emakumeekin. Batez ere emakumeekin. Nekazaritza politika horiek aldatzeko modua mahai gainean eztaba-datzeko jarri, eta amorrua ematen diguna da, gai ez izateak.

Zer esan nahi duzu horrekin?

Azken urte hauetan asko entzuten da emakume baserritarren estatutuari buruz. Estatutu hau 2007an hasi genuen Eusko Jaurlaritzan momentu hartan zeuden arduradun batzuekin, eta egia da borondate ona jarri zela, baina teknikoen mahai bat zen. Ez zen bukatu, ez zitzaion bukaera on bat eman. Gero beste batzuk etorri ziren gobernura, eta hartu eta ezer jakin gabe onartu egin zuten. Eta esaten dut ezer jakin gabe, zeren ez dakite. Lege bat ez da onartzen jakin gabe lege horrek zer behartzen duen edo zertan eragiten duen, eta gaur da eguna, oraindik ere, ez dakitena.

Zein egoeratan dago gaur egun estatutu hori?

Momentu honetan teknikoki aplikatu nahian dago, bakarrik baserritarrak behartuz. Gobernu edo sindikatuetako gobernu elkarteetan %40ak emakumea behar du izan. Inposatuz lege batzuk, erraztu gabe bidea. Jakin gabe zein egoeratan dauden emakumeak. Hori emakumeari sortu egin behar zaio, formatu. Emakumeak momentu honetan ez dauka elkarte batean egoteko beharra lehentasunen artean. Emakumeak bere lana ahalik eta agerikoena izatea nahi du, eta ahalik eta errentagarriena izatea nahi du.

Nola lortzen da hori?

Lagundu dezakete. Gizarte segurantzaren kotizazioan lagunduz, prestazioak hobetuz, presio fiskala jaitsiz, errentagarritasuna bilatuz ekoizten diren elikagaie-tan. Azken finean elikagaiak ekoizten direnean sal-

mentarako dira. Etxeetara iristeko egiten da, eta hori erraztu behar da. Aho eta ikusmena betetzen zaigu iragarkietan Km Oarekin. Km O egiten da bakoitza bere herrian, bere etxean, eta hori lagundu egin behar da. Zergatik ez da laguntzen hori? Iristen direnak laguntzen dira, eta horra iristen ez direnak hor konpon. Egindako diagnostikoan hamar emakume baserriarretatik bakarra da gizartearen aurrean eskubide osoz langile. Hori oso larria da. Emakumeen %80ak ez du kotizatzen. Izugarrikeria bat da.

Datu esanguratsua...

Benetan nahi baldin badugu sektoreak bizirautea eta benetan emakumeen berdintasuna sektorean bermatzea, eta nahi baldin badugu Km O,... benetan goazen nekazaritza politika txukun bat planteatzera. Eta hori posible da. Gobernuan eta instituzio ezberdinetan dauden arduradun horiek badakite.

Zer falta da, beraz?

Borondatea behar du. Borondate politikoa. Erabiltzen duten diru kopurua erabili behar denean erabiltzea falta da. Ez dago, eta ez dagoen momentutik, urriaren 15a [Landa-eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna] moduko egun zoragarriekin margotzen saiatzen dira mundua. Hori ez da emakume baserriarren eguna. Emakume baserriarrok betidanik esan dugu bi egun ditugula: maiatzaren 15a [San Isidro, baserriar eta nekazarien eguna] eta martxoaren 8a [Emakumeen Nazioarteko Eguna]. Ez dugu egun baten beharrik. Txalotzeko zer? Zein gaizki gauden? Benetan oso triste da ikusi nahi ezarekin aurkitzea. Eta *online* bidez saioak antolatzea, non ez den landuko emakume baserriarrek kezkatzen dituen. Segurtasuna baserrian, errentagarritasuna baserrian, forma juridikoak, ikusaraztea, ahalduntzea, laguntzea, titular den hori eskubide osoko titular eta langile izatea. Ez gara ari diru laguntzak gehitzeaz, baizik eta erabiltzen den diru hori nekazaritza politikak egiteko benetan ondo erabiltzeaz. Eta hori posible da. Udaletxe hainbatek hartu dute beregain, eta bere gain hartu duten udaletxe horietako egoera hobea da, nahiz eta, orokortasunean, kaskarra izan. Gure aldarrikapenak aldatu dira, baina iparrak berbera izaten jarraitzen du.



Badago zer egina, beraz, oraindik.

Benetan borondatea eta nahia egonez gero, emakume baserriarren lanaren errekonozimendua eta ikusgaitasuna benetako izateko, goazen arautzera, baina estatutu txukun batzuekin dena. Ez dadila bakarrik jaso betebeharra, baizik eta, eskubideak ere bai. Eta instituzioen eta administrazioaren egin beharrak ere bai.

Ez da emakume baserriarren ahotsik entzuten?

Ez da entzuten, ez zaiolako benetan galdetzen. Arduradunak ez dira kezkatzen benetan emakume baserriar horren lehentasunak zeintzuk diren jakiten. Nik tekniko izanda, zerbait koordinatu edo antolatu nahi badut, lehenengo ezagutu egin beharko dut eremu hori. Hori da falta dena. Hortik abiatu, eta prest gaude eta irekita gaude. Mahai guztietan gaude. Estatutuen mahaian ere bagaude, eta mila aldiz esan dugu, ez dugula onartu behar, non guri betebeharrak baino ez zaizkigun jartzen. Legezko eta loteslea den estatutu bat behar dugu. Administrazioak zer egin handia dauka, eta instituzioetan izugarritzko lana dute. Politikoez, bene-benetan, zintzo izanda, zerbait lortu nahi badute badakite nondik nora jo be-



har duten. Gertatzen dena da beraien lehentasunak beste nonbait jartzen dituztela. Sistema kapitalista patriarkatuari egur gehiago botatzen diote. Tristeia da, baina hori horrela da. Kontrakoa dioenak, ikusi nahi ez duelako da. Ematen du itxita gaudela, baina ez gaude itxita. Nik uste dut batasuna lortzen ari gara, gure artean eta baita beste herrialdeetako emakumeekin ere. Poliki-poliki bakoitza bere ñabardurak eta koloreak jarriz, nik uste dut ba-goazela batasun batera. Gaur ez bada, bihar lortuko dugu jake mate hori egitea. Baina benetan egitea beharrezkoa da, bai emakumeen aldetik eta baita gizonezkoen aldetik ere; orokorrean, sektore honek egitea behar du.

Estatutu hori duzue lehentasunezko?

Estatutua lehentasunetako bat bada, eta gaur egun ez da, eta pena ematen digu. Hamahiru urte daramatzagu. Gutxitan elkartzen da mahai, eta elkartzen den aldi gutxitan

«Sektorea bizirik mantendu nahi badugu ezinbestean emakumea bertan ageriko eta eskubide guztiekin mantendu behar da»

hor gaude. Baina dena esango dizut, dozena bat lagun elkartzen bagara, bi baino ez dira emakume baserritarrak. Ez da lurrera eta sektorera lotzen. Hori birbideratu nahiko genuke.

Emakume baserritarrak ere kontuan hartzea behar du.

Emakume baserritarrak benetan behar duena da bere lanak erraztea. Presio fiskal hori jaitea baserrietan emakumeak bere lekua izan dezan. Eta errentagarritasuna bilatzeko ez izatea horrenbeste arau eta behar betearaztea. Langile oso izateko eskubide batzuen gozamina behar du, eta aldarrikapen hori egiten dugu errazte aldera. Autonomo berezi horietan kotizazioak eta prestazioak aldatzea, eta ez dit balio hori gizarte segurantzaren kontua dela esateak, eta pilota bata bestearengana botatzeak. Hemen borondate politikoa baldin badago, posible da aldatzea. Ekonomiaren %2a produzituko dugu, baina herri honek eta Euskal Herriak daukan aberastasun garrantzitsuenetako bat sektorea da. Bertan dago herri honek behar duen oxigenoa, eta behar duen elikagaia.

Berdintasuna urruti dago?

Ez da berdina kaleko eta baserriko emakume bat. Ez da gutxiago eta ez da gehiago, baina ez da berdina. Orduan, ezin dugu berdin tratatu. Lege ezberdinak behar ditugu, eta nekazaritza politikak barneratu behar ditu. Kaleko emakume baten berdintasuna edota baserritar emakume baten berdintasuna oso ezber-

dina da. Gaur egun, nahiz eta lan egin, emakume baserritarren %80ak ez du kotizatzen.

Gizonezko baten azpian ezkutatuta dago emakume baserritarra.

Betidanik gertatu dena da. Elizak, politika, industrializazioak... kalte handia egin zuen gure rola zeintzuk ziren zehaztuz. Hori, baserrian oraindik ere neurri txiki batean mantentzen da. Kulturalki horrela izan da, eta horrela izaten jarraitzen du. Eta zorionez emakume baserritar gazteak bada-toz. Nekez eta lan askorekin, eta horiei erraztu egin behar zaie bidea.



«Guk tente jarraitzeko jendeak bertako elikagaiak eta garaiko produktua erostea behar dugu»

AINHOA OTAÑO

IPINTZA BARRENA BASERRIA (ABALTZISKETA)

Ainhoa Otaño ibartarra Abaltzisetako Ipintza Barrena baserrian bizi da familiarekin. Okindegiko lana utzi, eta baserriatik bizitzeko hautua egin du, haragitarako behiak jarriz.

Baserritik bizitzeko hautua egin duzu. Zein proiektu duzu esku artean?

Ukuilua daukat, eta haragitarako behiak ditut Pirenaika arrazakoak. Txekorrak gizentzen ditut.

Zerotik hasten duzun proiektua da, edota bazenu ten zerbait dagoeneko baserrian?

Bai, zerbait bazegoen. Ni Ipintza Barrena baserrira ezkondu nintzen, eta amaginarrebak esnetarako behiak zituen. Horiek kendu eta haragitarako behiak jarri genituen. Eta orain horri heltzea erabaki dugu.

Nolatan eman duzu pauso hau?

Ama naiz, eta okindegiko bat nuen. Amatasuna eta okindegia lotzea oso zaila egiten zitzaidan.

Noiz hasi zinen, ordea, ideia honi bueltak ematen?

Pare bat urte izango dira. Berotzen nintzen, eta gero hoztu egiten nintzen. Okindegia nuen, eta ez nuen utzi nahi, baina beste aldetik oso lotua sentitzen nintzen. Pare bat urte bueltaka, eta heldu-heldu martxoan heldu nion. Pandemia hasi zen garaian.

Hor berotu zinen.

Bai. Okindegiko kontratua ere bukatu egiten zitzaidan, eta neure buruari esan nion: «Edo orain da aukera, edo beste pixka batean egon beharra daukat». Okindegia utzi eta baserriari heltzea erabaki genuen.

Behin erabakia hartuta, zer egin behar izan duzu?

Ukuilua bagenuen, baina nik jarri nahi izan dudak kopururako handiagoa izatea eskatzen zuen. Gaztenek proiektuan sartu nintzen, eta proiektu bat aurkeztu behar izan nuen. Gaur egun beste pabiloi handi bat bukatzen ari gara.

Orduan, laguntzaren bat jaso duzu.

Bai, Gaztenek proiektuan sartzean beraiek proiektua aurrera eramateko laguntza ematen dizute, eta bai laguntza jaso dut.

Bazenuen Gaztenek proiektuaren berri?

Amezketan badira beste bi-hiru neska sartuta daudenak, eta entzuna ere banuen. Haiei ere galdetu nien, eta informazioa lortuta sartzearabaki nuen.

Urte batzuk atzera egin eta inoiz imajinatuko zenuen zeure burua horrelako zerbait egiten?

Ez. Orain dela urte batzuk esan izan balidate, ez, ez nuen pentsatzen. Bizitza honek buelta asko ematen ditu, eta amatasunarekin zerbait ezberdina nahi nuen. Etxean bagenuen, aitona-amonak ere adinean aurrera doazela ikusten genuen, eta pixka bat guztiari begiratu eta horri heltzea erabaki dugu.

Zer esan dizu gertuko jendeak?

Ondo. Gehienek animatu egin naute. Etxekoak-eta guztiak ere baserritarrak izanik, denak gustura.

Obran ari zara. Nola aurreikusten duzu martxan jartzeara?

Udan mendian edukitzen dugu ganadua, baina dagoeneko sartu dugu barruan, eta ukuilu zaharra beteta daukagu. Berria ere ia bukatzean da. Urri amaierarako aurreikusten dugu amaitzea. Hor txekorrak sartuko ditut, eta biak beteta izango nituzke.

Behin behiak jarrita, irudikatzen duzu zure egunerokoa nolakoa izango den?

Irudikatzen dut. Badakit pixka bat martxa nolakoa izango den, orain arte izan dugulako. Guztia beteta irudikatzen dut, eta gustura. Oso ezberdina izango da lehen egiten ari nintzenetik honakoa, baina irudikatuta daukat egunerokoa nolakoa izango den.

Haragitarako behiak dira zureak. Esne behiekin alderatuta lana arinagoa izango dela esan daiteke?

Bai, askoz ere arinagoa da. Esne behiak bere orduak betetzea eskatzen du goizean eta gauean. Askoz ere

lotuagoa da. Haragitarakoekin ere goizean eta gauean egin behar dituzu, baina ez da ordutegi baten barruan sartuta. Goizean ordu pare bateko lana izango dut, eta baita gauean ere. Egunean zehar beti izango da zer egina, baina askoz ere arinagoa da.

Txekorrak gizentzean, saldu egin behar.

Lotuta daukat guztia. Guk gizendutako txekorrak Urkaikora joango dira. Txekorrak gizentzean beraiei deitzen diegu, eta beraiek etorriko dira. Alde horretatik Urkaikorekin errazagoa da. Harakin bat bilatu, eta hari saltzea zailagoa da. Ez da hain erraza. Anaiak horrela egiten du, eta bera ikusten dut. Udan gutxiago saltzen da, eta txekorrak saltzea zailagoa da. Gero handiegi egin dela, eta harakinarekin tira-birran. Alde horretatik, ni lasaiago.

Uste duzu gizarteak baloratzen duela baserritarrok egiten duzuen lana?

Nik uste dut zerbait baloratzen dela, baino gehiago baloratu beharko litzateke. Egia da pandemia garaian pixka bat baloratu zela, baina berriro ere lehenagokora itzuli gara. Jendeak ez dauka hemengo produktuak erosteko hainbesteko ohitura. Alde horretatik uste dut gauza asko dagoela egiteko.

Lehen sektorea bazterrean sentitzen duzu?

Pixka bat bai. Batzuk baloratzen dugu egiten den lana, baina gizarteak esango nuke ez duela asko baloratzen. Alde horretatik bai ikusten da baztertuta dagoela.

Instituzioetatik nahikoa egiten dela uste duzu?

Ez. Nik jaso dudak laguntza hori oso ondo dator, proiektu bat duzunean, horri hasiera emateko, baina nik uste dut hor ere oraindik asko falta dela. Gehiago lagundu behar litzazuke lehen sektorea izanik. Bertakoa eta elikadura ona egin eta saltzen ahalegintzen gara, eta ez digute behar adina baloratzen eta laguntzen. Exijitu gehiago egiten digute, lagundu baino.

Beharrezkoa da bertakoa eta garaian garaikoa erosi eta jatea.

Guk hori behar dugu. Bertakoa den Km 0 jendeak erostea eta baloratzea, eta garaian garaikoa izatea. Guk tente jarraitzeko bertako jendeak bertako elikagaiak eta garaiko produktua erostea behar dugu.



**AITOR
ATXEGA**
MANEX BAT

Etxahun-Iruri eta festa!

Joan zen itxialdia, joan da uda zoro hau... Eta badator ere ikasturteari promes berriak egitearen garaia.

Manexak bere buruari galdetu zion ea ohikoz apartekorik zer egingo duen negu honetan; bederatzi hilabetez zer egin dezakeen gordetzeko modukoa... Eta noski, manexari ekialdera egin dio garunak! Zuberoako dantzen gainean *ikertzen* hasi? Zuberoako aireak entzun? Datorren urteko pastoralaren antolaketa-aren inguruan murgildu? Azkenean hartu dut erabakia: Zuberoako dozena erdi autore apartatu eta hauen obratan barrena nabigatzea erabaki dut. Etxahun-Iruriren bizitza oso interesgarria eta emanorra izan zela badakit eta hemendik hasiko naiz, listo! Hemendik eta handik hartutakotik eta gogoratzten dudanetik, hauxe da nire abiapuntua.

Pierre Bordazarre *Etxahun-Iruri* (1908-1979) Iruriko Etxahunen jaio zen; aita zuen bertakoa eta ama Bar-koxekoa. Bigarren haurra baina lehen mutikoa zenez, aita premu egin zuen Zuberoako usaia jarraituz. Ikasle ona zen Pierra eta gutxik lortzen zutena lortu zuen: sei urtetik hamahiru urterako eskola-aldiari zegokion *certificata*. Literatura gaiak atsegin omen zituen.


Bera eta anaia Munduko Bigarren Gerra handira deituak izan ziren 1939an (bi seme izan zituen 1936 eta 1938an) eta bertan galdu zuen anaia... Oroitzapen mingarri hartatik ez zen behin ere askatu.

Zuberoako dozena erdi autore apartatu eta hauen obratan barrena nabigatzea erabaki dut



Ziur gogoan duzula Patxi Saizi sarri entzun diogun kantu hau: *Aski sofritüz nik hanitzetan desir nūkean hiltzea, ez bazüntüdan hain maite üken oi Ama Euskal Herria*. Sorterrira itzuli ostean idatzi zituen bertso zoragarri hauek. Louis Ligetx izan zuen bertso irakasle eta Pierrak ondo, asko, eta azkar ikasi zuen bertsotan.

Baina lehenago sartu zen Pierra jai munduan Ozazeko Leon Sala-



Etxahun txirularekin eta Gaat Arhane atabalaz. **BIDEGILEAK**

berren eskutik. Leon kantari zen, dantzari, istorio kontalari, musikari, pastoral errejenta... Honek era-kutsiak ondo jaso eta arte hauetan distira gehiago izan zuen orokorrean bertsotan baino. Gaztaroan harmonika eta txirula ikasi zituen belarria ezinago zorrotzuz. 1938rako zenbait abesti eginak zituen. Adibidez: *Domecq mariñelaren hiltzia* (Donibane-Lohitzunekoa zen arrantzale hau, beraz, ordurako Zuberoatik harantz ikusten zuen Etxahunek). Gerora 200 abesti inguru utzi dizkigu Pierrak. Aipatu gabe ezin utzi 1946an egin zuen *Agur Xiberüa*, *Goizian argi hastian, anaia etxen da ezküntü*, (Benito Lertxundi oriotarrak *Oi ama Eskual Herri* izenburuaz ezagutarazia), *Ama Euskadi ...*

Pasadizo polita 1962 edo 1963. urtean gertatua. Gaztetan txirula jotzen aritu zen Etxahun-Iruri baina

Gerora 200 abesti inguru utzi dizkigu Pierrak. Aipatu gabe ezin utzi 1946an egin zuen 'Agur Xiberüa'

ahaztu egin zuen ez jotzearen ondorioz. Adineko hiru txirulari baziren Zuberoan baina hirurak eri gertatu ziren Atharratzeko kermeza edo festa batean. Etxahun txirula jotzera *behartu* zuten atharratzarrek eta oso ondo egin omen zuen lana; laster, maskaradaz maskarada aritu zen Pierra Gaat Arhane lagun atabalean: Euskal Herri osoan ahaztezin bilakatu zen bikotea.

Halere, seguru asko pastoralena da Etxahun-Irurik gehien landu zuen bidezidorra; pastoralera ekarri zuen iraultza oraindik ere sarritan da aipagai hemen eta han. Aurtengo ekainaren 6an ATARIARAKO idatzitako artikuluan luzeago aritu nintzen honetaz, beraz ez dut lehen esanik errepikatuko.

Hauxe nire gonbita beraz. Gustu baduzue ikus eta galde ezazue Etxahun-Iruriren gainean. Asko gozatuko duzue, ziur!

Kaixo, Txistuleitor jauna (III)



**ARITZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA
HITZALPETIK**

Aurten esan digute ez dugula musika-eskolarik edukiko. Iaz, bigarren mailan nengoenean, talde instrumentaleraren josten nintzen, Lixue eta Riyadhekin batera. Lixuek bio-

lina jotzen du, eta Riyadhek akordeoia. Baina, esan bezala, aurten ezingo dut haiekin jo; horregatik, zer iruditzen zaizu zuk eta nik elkarrekin talde instrumentala osatzea? Biok txistua jo dezakegu eta kalejirak egin! Dena den, ni ezkertiarra naiz, eta, Eztizenek, musikako irakasleak, esan dit danbolina eskuinarekin jotzen dela. Zu ere ez zara ezkertiarra izango, ezta?

Zuk nirekin jotzen baduzu, pentsatu dut Lixuek Txinako emakumearekin jo dezakeela, zer iruditzen zaizu? Biak txinatarrak izanik, elkar ongi ulertuko dute. Amatzok esan dit txinatar emakumea lehen albistegietako aurkezlea zela. Instrumenturik jotzen ez badu, ziur nago ongi abestuko duela, ahots leuna dauka eta. Bestalde, esan al diozu Txinako emakumeari amatzoren ile-apaindegira joateko? Badakizu ile-apaindegia itxita egon zela, eta orain jende gutxi josten zaio. Bide batez, Lixuekin hitz egin dezake, eta Lixue eta biok ilea motz diezaiokugu. Ez dut uste axolako dionik.

Amatzok esan dit txinatar emakumea lehen albistegietako aurkezlea zela. Instrumenturik jotzen ez badu, ziur nago ongi abestuko duela, ahots leuna dauka eta.

Riyadhentzat ere taldea aurkitu nahiko nuke. Riyadh-ek lorategia esan nahi du; eta Lixue-k elurra, esan nizun, ezta? Zure gelan ba al dago akordeoia jotzen duen norbait? Tira, ez du zure gelakoa edo kuadrillakoa izan beharrik.

Aurreko Euskadiko zuzendariak saxofoia jotzen omen zuen. Oraindik zure gelan dago? Edo kanpora joan da? Zoritxarrez, ez dut saxofoia jotzen duen inor ezagutzen. Hala ere, nire anaiari galdetuko diot, agian, DBHko norbaitek berarekin jo nahiko du. Nik DBHkoei galdetuko diet, eta zuk HBkoei, ados? Baten bat ezagutuz gero, idatzi nire eskolara.

Gaur jangelan bazkalduko dut, hemendik aurrera, bazkalondoren, egunero entseatuko dut!

Zuk ere asko entseatu, Txistuleitor jauna.

Agur!

Udane

Behintzat



JONE ALBERDI
IKASLEA

Egunkaria alde batera utzi eta hasperen batek ihes egin dit: inauteriak bertan behera geratu dira. Ulergarria da, noski baietz, baina albisteak jota utzi gaitu. Horrela beharko du bai, baina errutina apurtzen duten planak egiteko ezintasun hau jada nekagarria bihurtzen ari da.

Urtarrilean 2020ari hasiera eman genion ilusioz. Otsailean inauteriak ospatu genituen eta beti bezala, hurrengo urtera arte agurtu genituen. Martxoan harridura izan zen nagusi, ezin genuen sinistu gertatzen ari zena. Apirilean begiak kliskatu eta ezer egin gabe, hilabete osoa pasa zitzaigun. Maiatzean beste hainbeste.

Ekainean aldiz, berriro ere bizitzara bueltatzeko nahia genuen, hala ere dena ezberdina zen; San Joanik gabeko urtea izan dugu hau. Uztailean bidaiatxo motzak antolatzen saiatu ginen, nahiz eta beldurra naharekin nahastuta zegoen. Eta abuztua pixka bat lasaiagoa izan zen agian, oraindik ere planak halamoduz eginez, baina pixkanaka ohituz. Irailean kurtsoaren hasiera izan dugu, zoramena nagusi. Eta urrian... 2021eko inauteriei agur esan behar diegu.

Ez gaizki ulertu, ez naiz kexatzen ari, izan ere, ez nau parrandan ateratzeko ezintasunak gogaitzen; festa hauek ematen dizkiguten atsedenaldi eta zoriontasun momentuen falta da. Noiz edukiko dugu berriro ere herriko festak lasai ospatzeko aukera? Eta zinean edo antzerkian bata bestearen ondoan esertzekoa? Bidaiaren bat egitea ere ondo legoke, gero bueltan, etxekoekin elkartzean, kutsatuko ote ditudan pentsatzeko beharrik gabe.

Egunkariari begira geratu naiz, nahikoa berri kezkarri irakurri dut gaurkoz. Mugikorra hartu eta lagunei idatzi diet; goiz da oraindik eta agian norbaitek geratu nahiko du Netflix-eko pelikula kaxkarren bat ikusteko. Eta nahiz eta musukoa jarrita utzi ala ez erabaki beharko dugun elkartzean (hauek komeriak hain plan xumearentzako!), irribarre txiki batek ihes egin dit, plan txikiak egiteko aukera badugu behintzat...

[...] irribarre txiki batek ihes egin dit, plan txikiak egiteko aukera badugu behintzat



IONE GOROSTARZU
POETA

Hasiera

Dena odol
dena busti
dena guri
hasten gara
negar, izu eta egarri.

sabel puztuetatik
sabel gozoetatik
sabel nekatuetatik irteten gara
ebakitako
bortxatutako
edo ordaindutako sabeletatik.

jaiotzea sortzea bailitzan
sortzea, hastea
eta hastea, ekitea
hutsetik

baina alu batekin jaiotzen gara
edo zakil batekin
norbaitena baino larru zuriagoarekin
eta norbaitena baino
beltzagoarekin

abizen, naziotasun agiri
eta aurrezki kontuarekin jaiotzen gara
ala abizenik, naziotasun agiririk
aurrezki konturik gabe

ospitale pribatuan jaiotzen gara
adosatuko baineran
errefuxiatu gunean
edo pateran

eta
dena gose dena haragi dena marru
hasi egiten gara
baina ez gara hasten
hutsetik.



Heriotzaren inguruko gaiei bizia emanez

Heriotzari Bizia Ematen jaialdia egingo da estatu osoan azaroaren 1etik 7ra bitartean. Besteak beste, honako gaiak landuko dituzte ekitaldi desberdinen bidez: heriotza, dolu prozesuak, zainketa aringarriak, komunitate errukitsuak, etab.

Heriotza betidanik izan da gai interesgarria sakoan lantzeko, baina, izurritea hasi zenetik, gizartean are pisu handiagoa hartu du. Hala uste du Amaia Gozategik, jaialdiko antolakuntzako kideak. «Heriotzaren gaiari ikusgarritasuna ematea da festibalaren xede nagusia, gaia bistara atera eta patxadaz lantzeko», azaldu du. Izan ere, Gozategiren iritziz, osasun krisiak agerian utzi duen bezala, gizarteak oraindik lan asko du egiteko heriotzaren inguruko gaien gainean. Hala, estatu mailako egitasmoa antolatu dute: *Festival Dando Vida a la Muerte* (Heriotzari Bizia Ematen jaialdia). Donostian, Bilbon, Madrilen eta Mallorkan egingo dituzte ekimen nagusiak, baina EAE-ko hainbat txokotan ere antolatu dituzte erakusketak, bilkurak, hilerrietara bisitak, poesia errezitaldiak, hitzaldiak, zine-forumak...

Lehen edizio honetan, ezinbestean, pandemia kontuan hartuz landuko dituzte gaiak profesionalak: «Jendeak gertatzen ari dena ulertu nahi du, eta saiatu gara interes horri ahalik eta erantzun onena ematen».

Sarean eta aurrez aurre

«Itxialdiak iraun bitartean, Estatu talde eta fundazio desberdinetako jendea ezagutzeko aukera izan nuen Internet bidez antolatutako ekimenetan. Bakoitza bere txokotik ekarpenak egiten ari zela ikusita, elkartu eta elkarrekin proiekturen bat abiaraztea adostu genuen,», dio Gozategik.

Programaren zati bat *online* izango bada ere, antolatzaileek saiatu nahi dute aurrez aurreko ekimenei ere eusten. «Izan ere, guretzat garrantzitsua da saio-

ak publikoan izandako eragina bertatik ikustea», azaldu du antolatzaileak. Jaialdiak ahalik eta zabal-kunde handiena izan dezan, programak bi alderdi izango ditu: bata orokorra, estatuko puntu guztietarako bera izango dena, eta bestea tokikoa, leku bakoitzeko jendeak antolatuta. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkie ekimenarekin bat egin duten tokian tokiko kolaboratzaileei. **Programa kontsulta daiteke dandovidaalamuerte.org webgunean.**

'Grand Death Cafe' eta 'Hil aurretik nahi dut...' horma

Heriotzari Bizia Ematen jaialdirako osatu duten programaren barruan, *Death Cafe* handi bat egingo dute. Plataforma baten bidez, mundu osoko jendea batera konektatuko da. «Parte hartzaileak gela birtual txikietan banatuko ditugu». Gelak hizkuntza irizpideen arabera antolatuko dituzte: ingelesez eta gaztelaniaz izango dira saioak.

Jaialdiaren barruan, beste dinamika bat ere jarriko dute martxan: «Herri eta hiriko txokoetan esaldi baten hasiera jarriko dugu: 'Hil aurretik nahi dut...'. Hala, herritarrengan eragin nahi dugu, jendeari hausnartzeko bide eman», azaldu du Gozategik. Gasteiz, Donostia, Tolosa, Irun, Orio, Zumaia, Mutrikuko hormetan abiatuko dute ekimena, eta, ziurrenik, leku gehiagotara ere zabalduko dute.



AGENDA

OSTIRALA URRIAK 16

ALEGIA

TALO POSTUA

19:00-21:00. Sutarri dantza taldeak antolatuta, talo postua jarriko da plazan.

ALKIZA

UDAZKEN KULTURALA

19:00. *Zuhaitz lepatuak: Itzalitako ogibide baten lekuko biziak.* Mendeen joan-etorrian, gizakiak garaian garaiko egoerara moldatu eta diru-iturri berriak aurkitu behar izan ditu. Hainbat ogibide desagertu egin dira ondorioz. Alkizan, sasoi batean, familia guztietan bazen ikazkinen bat. Ordea, txondorak bezalaxe langintza hori aspaldi itzali zen. Zuhaitz lepatuak baina, ofizio horren lekuko biziak dira. Alvaro Aragon historialariak zuhaitz mugarratuen inguruan jakin beharreko guztiak kontatuko ditu. Izena emateko: 688 604 446 edo kultura@alkiza.eus.

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

21:00. Pilota partidak. Eskuz banakako txapelketa: Rezusta eta Etxeberriaren arteko sailkatua vs. Dario. Eskuz binakako partida: Altuna III - Bikuña vs. Iribarria - Galarza. Sarrerak salgai www.entradasfronton.com webgunean eta partidaren egunean, frontoian, 20:00etan.

TOLOSA

HITZALDIA

18:30. *Koronabirusa. Beste begiradak* hitzaldi zikloaren barruan, Sergio Paniagua medikuak, medizina biologiko psikosomatikoan adituak hitzaldia eskainiko du: *Koronabirusaren historia luzea.* Kultur etxean.

KONTZERTUA

20:00. Esteban Elizondo. Organo kontzertua, Santa Maria elizan. Gonbidapenak: kultur etxean aldeztatik eta egunean bertan ere, sobera badaude.

IKUSKIZUNA

20:30. *Viaje al fin de la noche* ikuskizuna. Bizikidetzak saioa. Proyecto 43-2 antzerki taldeak Euskal Herriak pairaturiko indarkeriaren eta bizi duen bake prozesuaren harira sorturiko trilogiaren azken lana da. Lan hauen bitartez, antzerkia gatazka eraldatzeko tresna bezala erabiltzea eta antzerkia 'Bestearekin' topagune bilakatzea lortu nahi da. Leidorren.

ZIZURKIL

TOPAKETA

10:30. Guretzako emakume atzeritarren topaketa. Atxulondo kultur etxean.

LARUNBATA URRIAK 17

ABALTZISKETA

BAKARRIZKETA

22:30. Txikiren umorezko baka-rrizketa. *40 urte ta aldapan behera niek.* Ostatuan.

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

10:00. Auzolana erreka garbitzera. Ur saneamendua eta bidegorriaren aldeko lantaldearen eskutik, erreka garbitzera joateko deialdia. Gazteez eta helduez gain, gurasoak eta haurrak ere gonbidatuta daude parte hartzera. Katiuskak norberak eraman beharko ditu.

IBARRA

MUS TXAPELKETA

Bazkaria eta mus txapelketa 18-45 urte bitartekoentzat. 20 euroan bazkaria eta mus txapelketako sarrerera. Lehenengo saria: bi laguntzat seina hilabeteko bazkidetzak doan eta bi laguntzako bazkaria Tolosako Bidebiden. Bigarren saria: bi lagunenetzat hiruna hilabeteko bazkidetzak doan eta ardo botila pare bat. Xepla elkartean.

IRURA

KALE IKUSKIZUNA

20:00. *Urbasa.* Hutsun + Ortzi taldearen kale ikuskizuna. Plazan.

LARRAUL

IKASTAROA

10:00. 16 urtetik gorakoentzat zuzenduta. Urriak 17, 31 eta azaroak 7. Irakaslea: Iñaki Rezola.

LIZARTZA

TAILERRA

09:30. Xaboa egiten ikasteko tailerra antolatu du Lizartzako Udalak. Izena udaletxean eman beharko da. Plaza mugatuak dira, beraz, izen-emate ordenaren arabera itxiko dute zerrenda. Tailerrak 15 euroko kostua izango du. 16 urtetik gorakoentzat izango da eta lehentasuna izango dute Lizartzan erroldatuta daudenek.

TOLOSA

KOTXE MARTXA

10:30. *Berandu baino lehen botikina Amorozen* leloarekin kotxe-martxa. Amaroako frontoitik abiatuta.

12:00. Udaletxe aurrean elkarretaratzea.

MANIFESTAZIOA

12:30. Tolosaldeko herritar eta Asuncionezko langileek deituta, manifestazioa. Asuncion ospitaleko konfinamendua salatu eta osasun arreta publikoa aldarrikatzeko manifestazio deialdia. Tolosako udaletxe aurrean.

AGENDA

EUROPAKO ONDAREAREN

JARDUNALDIAK

11:00. *Antzinako dokumentuak desfizatzen.* Gipuzkoako Artxibo Orokorrak paleografia edo idazketa zaharreko tailer bat antolatuko du, dokumentu zaharrak ezagutu eta interpretatzeko ga-koak emateko.

SARRERA SALMENTA

Tolosako Abesbatza Jaialdia 2020. Sarreraren salmenta. CIT-en edo <https://tickets.kutxabank.es> Helduen sarrera: 12 euro.

IGANDEA URRIAK 18

AMASA-VILLABONA



DANTZA IKUSKIZUNA

19:30. *Gorria.* Flamenkoa eta bertsoa. Askoa Etxebarrieta *La Pulgarekin* eta Miren Amurizarekin. Sarreraren prezioa: 6 euro. Gurea antzokian.

IRURA

II. PELLO ERROTA BERTSOLARI

TXAPELKETA

17:30. Bigarren kanporaketako bertsolariak: Amaia Iturriotz, Iñigo Izagirre, Odei Barroso, Saioa Alkaiza, Unai Mendizabal *Mendi* eta Xabat Gallettebeitia. Aurkezlea: Unai Belaustegi. Kulturunean.

ASTELEHENA URRIAK 19

AMASA-VILLABONA

IKT ASTEA

14:00-16:00. *Internet nire komertzio txikiaren eskura.* Tailer praktikoa eta dinamikoa marketing plan bat komertzio txikien 2020ko errealitatera moldatzeko. Komertzioei zuzendurik, Amasa-Villabonako Kz Gunean.

IKT Asteko ikastaro guztiak doakoak izango dira, baina izena ematea beharrezkoa da: 943 65 45 01 (Luz. 2) edo lehiberri@tolosaldea.eus helbide elektronikoa. Lekuak mugatuak dira, eta saio presentzialetan segurtasun neurri guztiak bermatuko dira.

TOLOSALDEA

IKT ASTEA

09:30. *Webgunea errentagarria izatea nahi duzu?* Zure webgunea negozioaren zerbitzura dago? Zer eta nola hobetu? Negozio helburuak errepasatu, eta webaren diseinuarekin eta marketing akzioen emaitzekin kontrastatuko dira. *Online.* Enpresei zuzenduta.

17:00. *Erreserba eta aforoaren kudeaketa turismo sektorean.* Zure negozioa dinamizatzeko gomena eta adibideak, aforoa eta erreserban kudeaketa kontutan hartuz. Turismoari zuzenduta, Lehiberrin.

TOLOSA

ODOLA EMATEA

18:00. Hileroko odol ateratzea, Gipuzkoako Odol Elkartearen eskutik. Kultur etxeko Topagunean, lehen solairuan.

ZINEMA



UNO PARA TODOS

Larunbata (19:30 eta 22:15), eta astelehena (21:00).
Gurea, Amasa-Villabona.



QUE SUENE LA MUSICA

Larunbata (19:30), igandea (19:30) eta astelehena (20:00).
Leidor, Tolosa.



VICKY EL VIKINGO:

LA ESPADA MAGICA

Igandea (16:00).

Leidor, Tolosa.

Bera bezain handia, berak utzitako uzta

Iaz zendu zen Jose Luis Longaron artista tolosarraren bizi osoko lanen erakusketa zabala bisitatu daiteke, ia arratsaldero, Tolosako Aranburu Jauregian. Zenbait sekretu eta bitxikeria ere gordetzen dituzte koadroez eta marrazkiez apaindutako espazioek. Gizon alaia eta langilea zen; hori dela eta, asko maite zuten senide nahiz lagunek.

Josu Artutxa Dorronsoro

Beste mundu baterako izakia. Brossa fineko umorea. Koadroei inoiz titulurik jaritzen ez zien gizona. Hizlari bikaina. Baina guztiaren gainera, lagun handia eta maisu totala. Horrela deskribatzen dute Jose Luis Longaron artista tolosarra, bere lagun eta gertukoek. Iaz zendu zen, eta haren oroimenez, bere obrekin osatutako erakusketa zabaldu dute Aranburu Jauregian.

Hilaren 2an egin zuten aurkezpena. Ez zen inaugurazio handirik egin, egungo testuinguruak ez duela horretarako aukerarik ematen. Hala ere, irekiera ekitaldian izan ziren Olatz Peon Tolosako alkatea, Izarne Iglesias Kultura zinegotzia, Nekane Mateo eta Michel Longaron, margolariaren senitartekoak, eta Josema Gonzalez eta Iñaki Caballero, Longaronen lagunak eta erakusketaren koordinatzaileak.


Azaroaren 14ra arte izango da ikusgai erakusketa, asteartetik larunbatera 17:30-20:30 bitartean. Artistaren hainbat obra ikusi daitezke Aranburu Jauregiko bi solairutan banatuta. Larrialdi egoerak eskatzen dituen babes neurriak bete eta herritar guztien osasun eta segurtasuna bermatze aldera, solairu bakoitzeko gehieneko edukiera 70 pertsonakoa da; beraz, ezin dira 140 pertsona baino gehiago aldi berean erakusketa ikusten egon.

Era guztietako lanak ikus daitezke Aranburu Jauregian. Koadroen forma, kolore eta margotzeko teknika edo estiloaren arabera daude bananduta, gela ezberdinetan nahiz bitrinetan. Bestalde, katalogo bat ere osatu dute, zenbait lagunek idatzitako testuekin, guztiak ere Longaroni eskainiak. Bere zenbait artelan tartekatuta dituzte idatzien artean, irakurgai arin eta entretenigarri bat izan zedin.

Harribitxi ezezagun bat

Josema Gonzalez eta Iñaki Caballero aritu dira koadro guztiak banan bana kokatzen eta erakusketa txukun mantentzen. «Makro-erakusketa honetan agerian geratzen den margolari fazetaz gain, musikaria zen Jose Luis, eta nik Tolosako rock-and-roll urteak berarekin partekatzeke zortea izan nuen», dio Caballerok. Dies Irae izeneko taldea osatu zuten, eta pare bat urtez egon ziren jardunean. «Zenbait kantu grabatu genituen, baina gerora guztiaz ahaztu ginen. «Indar gordina zuen izena berak sortutako kantu batek, eta horixe bera zen Jose Luis, indar gordina». Kantu hori euren harribitxia zela aitortzen du Caballerok, apaltasun osoz.

Erakusketari dagokionez, antolaketa guztiaren ardurua hartzea erraza izan dela dio. «Lehenik lan-talde



on bat osatu behar izan genuen. Gero, bere marrazkiak, artelanak eta koadroak zituztenekin kontaktuan jarri ginen. Ondoren, bakoitza sailkatu, eta Aranburu Jauregiko geletan nola banatu erabaki behar izan genuen. Azkenean, jauregitik kanpo ez da obrarik geratu».

Erakusketa antolatzen ari zirela, ordea, COVID-19aren pandemia heldu zen. «Guztia geratu behar izan genuen, birusak gure ilusio guztiak kolokan jarri zituelarik. Jose Luis bera pandemia honen atzean zegoela ere pentsatzera iritsi ginen, gure lana oztopatu nahiko balu bezala», aipatzen zuen Caballerok txantxetan. Izan ere, umorerako tarte ere eskaintzen zuen Longaronek. Horrela, era guztietako bitxikeriak gogoratzen dituzte Gonzalezek eta Caballerok. «Jose Luisek mania bat zuen, koadro bakar bati ere ez zion izenbururik jartzen. De-

netik egiten zuen, eta ez zen estilo bakar batekin identifikatu. 25 urte inguru zituenean, dirurik ez, eta koadroak zuriz margotu eta horien gainean lan egiten zuen. Amaierarako sekulako kapa pila eta pisu izugarria izaten zuten koadroek».

«Gizon umila zen, tokiko artista bat, bere lana eta sormena beti herriaren eta herritarren esku jarri zuena»

OLATZ PEON

Denerako trebea

Ukaezina da Tolosaren izena herriaren arnasa azaltzen duten ezaugarriekin lotzen dela, hala nola, historia, gastronomia edota kultura. «Azken hau, letra handiekin jarri beharrekoa»; esan zuen Peonek. «Herriaren betikoa dugu kultur sormenerako sena, eta azken urteetan areagotu egin da herritarrentzat egin

den eskaintza publikoarekin».


Hain justu, aipatutako eskaintza horretan modu ezberdinetan hartu du parte Longaronek. Izan ere, Tolosako kaleetan eskuragarri daude bere artelanak,



esaterako, Euskal Herria plazako sabaietan, udaletxe-ko hormetan eta tolosarron hainbat etxeetan. Horrez gain, denboraren eraginez, galtzen joan dira beste lan efimero batzuk ere, adibidez, Igarondo igerilekuko kanpoko hormetakoak.

Irakaslea ere izan zen ia hogeita hamar urtez, Tolosako Antonio Maria Labaien Kultur Etxeko ikastaroe-tan. «Urtero ikusten dugu lan horren aztarna, bertako ikasleek egiten duten erakusketan; harritzekoa da euren lan zoragarrietan irakasle onen eragina nolakoa den ikustea. Gainera, irakasle modura eta jendearekiko tratuan zuen trebetasuna ere goraiatzen dute», nabarmendu zuen alkateak. «Gizon umila zen, tokiko artista bat, bere lana eta sormena beti herriaren eta herritarren esku jarri zuena».

luz zendu bazen ere, oraindik ere ederki oroitzen dute lagun eta senideek Longaron bera. Nekane Mateo emazteak eskerrak eman nahi izan zizkien lagun guztiei, batez ere erakusketa posible egin dutenei, baita Tolosako Udalarari ere. «Mila esker berarekiko maitasuna erakusteagatik. Eskaini diozuen esfortzu guztia nire bihotzean gordeta geldituko da, baita bere bihotzean ere». Alkatearen ustez, desagertzeak sortutako nahigabea leuntzeko oso onak dira ome-nezko ekimenak. «Erakusketa honek, beraz, balio dezala Jose Luis betiko gogoan izateko, eta berak utzitako hutsunea leuntzeko. Artista handi honen itzala ez dadila inoiz desagertu», aipatu zuen Peonek.



Jose Luis Longaron 1952 - 2019

1 952ko azaroaren 19an jaio zen Jose Luis Longaron Galartza, Tolosan. Oso gazte hasi zen margotzen, eta zaletasun artistiko eta literarioetan kide zituen Joseba Urteaga eta Mariano Arsuaga lagunekin elkartzen zen astero Tolosako Cafe de la Amistad edaritegian, tertulia giroan.

18 urte besterik ez zituela, arestian aipatutako bi lagunekin batera, banakako erakusketa sail bat antolatu zuen ikasturtean zehar, Probintziako Artxiboaren eraikinean zegoen Udal Liburutegiko gela batean. Gipuzkoako hainbat artistek euren obrak erakusteko aukera izan zuten bertan: Matxin Labaien, Joxe Mari Telleria, Teresa Azkarate, Iñaki Caballero...

1972an, Tolosako Aranburu Jauregian, Lizardi Elkarrekin antolatutako Euskal Kultura Hamabostaldiko erakusketa kolektiboan parte hartu zuen, orduko euskal artista nabarmenenekin batera: Eduardo Txillida, Joxe Luis Zumeta, Vicente Amezttoy, Juan Luis Goenaga, Nestor Basterretxea, Marta Cardenas... Erakusketa hori bera, *Euskal Arte Erakusketa* izenburupean, Ataunen, Aita Joxemiel Barandiaran antropologo eta etnologoaren omenez antolatu ziren ekitaldien oinarrietako bat izan zen.

80ko hamarkadan sartu aurretik, beste hainbat erakusketa zabaldu zituen, Tolosan, Donostian nahiz Bartzelonan. 28 urte zituela, *Pott* aldizkariaren diseinu artistikoaren ardura hartu zuen, Marino Arsuagarekin batera, eta Atxaga, Sarrionandia eta Iturraldeekin elkarlanean. Gerora, arte plastikoetako irakasle lanetan aritu zen Tolosan eta inguruko hainbat herritan, eta 1987tik 2017ra arte Tolosako eta Ibarako arte tailerretan.

1987an, lankidetzan sinatu zuen Akademia Sekretuarekin; tartean ziren Atxaga eta Iturralde. Urte bat geroago, Tolosako Euskal Herria plazako muralak pintatu zituen, Iñaki Epelde, Koldo Jauregi eta J. M. Hernandezekin batera. 1889an Palmako Barcelo fundazioaren lehen pintura deialdian hautatua izan zen,



eta 1990ean sormen-beka eskuratu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik; horri esker, Osakidetza-aren lehen saria eskuratu zuen.

XX. mendeko azken urteetan eta XXI. mendeko lehenetan, herrian nahiz herritik kanpo, hainbat erakusketa eta horma-irudi tarteko, berrikuntza ugari ekarri zituen eskualdera. 1994an, Anoetako jaiotza eta Tolosako jaiotza eta Olentzero figura sortu zituen, Iñaki Epelderekin elkarlanean.

1998an, Tolosako Azoka Berezietako sariaren diseinua egin zuen, hau ere, Epelderekin; 2001ean Galiziaundiren irudia sortu zuten biek. Azkenik, 2009ko Naturaldia jardunaldietan, Arte-kalea proiektuan hartu zuen parte Tolosaldeko hainbat artistekin batera. Urteren batean Tolosako Abesbatza Lehiaketarako irudiaren diseinua ere aurkeztu zuen, nahiz eta gero ez zen aukeratua izan.



EGURALDIA

IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

OSTIRALA

Argitzera egingo du eguraldiak. Egunsentian oraindik euri tantaxkaren bat eroriko da, baina goizean bertan atertu eta ostarteak zabaltzen hasiko dira, arratsaldean giro nahiko polita geratuko zaigu. Haizeak aldakor joko du, arratsaldean ekialdetik finkatuko da. Termometroek zertxobait gora egin eta balio altuenak 13-14 gradutan geratuko dira.

LARUNBATA

Giro eguzkitsu eta lasaia aspaldiko partez. Goiz hotz baten ostean, zerua ez da erabat garbi agertuko, tarteka goi-hodei batzuk ikusiko ditugulako, baina hodei hauek ez diote eguzkiari trabarik egingo eta giro eguzkitsuz gozatu ahalko da egun osoz. Haizeak goizean hego-ekialdetik joko du, arratsaldean ipar-ekialdetik finkatuko delarik. Tenperatura igo egingo da eta balio altuenek 15-17 gradutan joko dute goia.

IGANDEA

Giro egonkorra eta are epelagoa. Berriz ere goiz hotza izan ondoren, zeruan goi-hodei batzuk ikusiko ditugu, baina eguzkiari baterre trabarik egin gabe. Gainera hodei hauek ez dira ugariak izango beraz, egun osoz giro eguzkitsua izango dugu. Haizeak ekialdeko ukitua izango du eta tenperatura balio altuenak igo egingo dira, goia 16-18 gradutan joaz eguneko erdiko orduetan.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

URRIAK 16, OSTIRALA
AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

URRIAK 17, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Jesus Maria Etxebeste.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
943 65 10 40.


URRIAK 18, IGANDEA
IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.

URRIAK 19, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.



Talentua eta pertsonen kudeaketaren gaur egungo egoera eta etorkizuneko erronkak

lehiberri

Covid-19 garaian talentuaren kudeaketaz hausnartzeko eta Tolosaldean abiatutako proiektuak aurkezteko saioa

**URRIAK 22 DE OCTUBRE
10:00 - LEHIBERRI ZENTROA**

lizen-ematea / Inscripción:

lehiberri@tolosaldea.eus

☎ **943 654 501**



EGUN ON TOLOSALDEA

ESKUALDEKO EUSKARAZKO IRRATIA



Goizean

- Aktualitatea
- Protagonistak
- Zuzenekoak
- Kantu eskaintza

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea
- Podcast-ak

Gauean

- Saio libreak (egin zure saioa!)

Eskakizun eta harremanetarako

• 688 41 00 33
emaila: ataria@ataria.eus



Atarikideentzat **Saski bat** daukagu

- Maier Ugartemendia (Leaburu-Txarama)



Mahalako produktuez osaturiko saski bat.

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

'Gorria' dantza ikuskizunerako bi sarrera.

- Luis Saizar (Berastegi)

Igandea, urriak 18, 19:30. Gurea Antzokian (Amasa-Villabona)



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

'Viaje al final de la noche' ikuskizunerako bi sarrera.

- Jokin Artola (Amezketeta)

Ostirala, urriak 16, 20:30. Leidor Antzokian (Tolosa)



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

'Rigoletto Opera Pantailan' ikuskizunerako bi sarrera.

- Pili Otaegi (Larraul)

Asteartea, urriak 20, 20:00. Gurea Antzokian (Amasa-Villabona)



Ataria jarriko da harremanetan

2mó

progresibo
erreflexuen
aurkako
lenteekin

229€

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



EZ EGIN UKO EZERI AUKERATU MÓ

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTI&PTICAS



www.multiopticas.com